

+ ANAITASUNA

V URTEA - N.º 49

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Bagilla (6) 1958

ESPIRITUAREN INDARRA

Iru milla Tertziario batu izan dira Lourdes-en maiatzeko leenengo egunetan. Danak zirean espaiñolak, peninsulako alderdi guztietarik etorritakoak. Euskalerritik, milla baiño geiago joan zirean.

Antxe, Ama Virgiñearen aurrean, altu bai altu autortu izan dabe, Irugarrendar zintzoak izan gura dabela, eta Aita Santuaren esanak artez artez gorde nai dituela.

Ezin leiteke ukatu: San Frantziskoaren Irugarren Ordenea indar aundi bat da Eleiza Katolikoan. Egia au altu esan bear dogu, danak jakin daie eta errealidadearen aurrean begiak zabaldu daiezan.

Irugarren Ordenea, Bizkai-Gipuzkoetako ia erri guztietan dago zabaldua. Duda barik, bera da Euskalerriko kofradiarik zaarrena. Duda barik, aspaldiko urteetan berak emon izan dau gure artean santutasunezko fruturik geien. Duda barik, aurrerantzean be, onik asko egin leike Euskalerrian.

Alan ta guzti-bere, asko dira gure artean, Irugarren Ordenan siñistuten ez dabenak. Asko dira, Irugarren Ordenearen indarra aintzat artzen ez dabenak.

Bai. An-or-emen, Hermandade batzuk ikusita gero, batek baiño geiagok esan leike, Irugarren Ordenea aintxiñako gauzea dala: gauza ederra bai, baiña zaarra, indarbakoa, eleizbideko andratxu batzuntzako egokia.

Au esan leiteke, baiña ez da egia. Gure artean Irugarren Ordenea ondo ez badago, geuk daukogu orren errua. Geuk, eta ez Ordeneak berak. Geuk errurik geiena, eta beste apur bat zirkunstantziak.

Arbola bat ilda dagoala esateko, ez da naikoa baten eritzia. Ezta askorena-bere. Arbolazaiñari konsultatu bear jako. Burubako gauzea izango litzake, urte baten edo biau fruturik emon ez dauala ta beste barik, oraiñarte sekulako urteetan frutu ederrak emon dituan arbolea ebagitea edo iltzat eukitea.


Eta zer diño arbolazaiñak? Zer diño Irugarren Ordeneagaitik Aita Santuak?

Ona emen, oraintsurengo Pio Amabigarrerenak esan dauana: «Ezin leiteke dudarik euki, San Frantziskoaren Irugarren Ordeneak oraingo mundu modernu onetan importantzia aundia daukola. Irugarren Ordenea ez da bakarrrik Fraile Frantziskanoen arazoa, Eleiza osoarena baiño. Gaurko gizonak Irugarren Ordenearen espiritua bear dabe, kristiñau zintzoak izateko; eta San Frantziskoaren ikuspidagaz ikusi bear leukeez munduko gauza guztiak.»

Zorionez, ba-dagoz munduan Aita Santuaren berbak abegi onez artu dituenak. Ba-dagoz Espaiña osoan, eta batez-bere Euskalerrian, San Frantziskoaren espiritua euki gura dabenak. Espiritu ori sendotuteko eta bata besteari adorea emoteko: orrèxetarako joan dira maiatzeko leenengo astean iru milla Tertziario Lourdes-era.

Urria, gure artean Irugarren Ordeneak leengo indarra artuko baleu, eta erri guztietan Irugarrendar zintzoak ugarituko balira!

Longa



* * * LOURDES * * *

Lourdes! Munduaren lau musturretara eldu, ta baztarrak guztiak bete dituan izena. Ez bakarrik belarrietan; baita gizonen eta errien espirituan-bere, dardara egin dauan izen bedeinkatua. Nik alan uste. Eta pentsetan nago, gure zeruko Ama dabillega emen, aurtengo urte onetan, aparteko modu baten, gizonen eta errien biotzak irabazten.

Niri beintzat, irabazi deust neurea. Aspalditxuko urtetan nenbillen Lourdes-era etorteko gurarari lekuzik ez emon gura ta bai emon gura. Azkenean egin neban neure artean: eretia badator, joan egingo naiz; ez badator, ez naiz joango. Eta eretia etorri egin da, eta ni etorri egin naiz Lourdes-era, Jaungoikoari eskerrak.

Ez arritu, irakurle, «etorri» ipiñi deusdalako. Kronika onetako lecnengo erreskadok beintzat, ementxe, Lourdes-en idatziak dira. Basilika santuaren orratzak aemen daukodaz begien aurrean, zerurantz begira. Gave errekearen zurrumurrua belarrietan. Massabielle-ko irudi zuria biotzaren barruan. Lourdes-ko kantua —Ave, ave, ave Maria— ezpanetan.

Bermeo-Lourdes

Maiatzaren 2, 3 ta 4-rako, Espaiñia guztiko San Frantziskoren Irugarren Ordeneak atondu izan dau peleginaziño andi bat Lourdes-era. Euskalerriko lau provintzietako Irugarrendarrak —zetan esan-bere ez— eurrakaz batera. Bermeokoak bardin.

Maiatzaren 2-an, goizeko seirak inguruan —goiz alaia, goiz argia— lau autobusen motorrak, gurgur zarataka asi zirean. Eta Ama Virgineari iru Agur Maria esanda gero, Lourdes-crantz urten genduan.

Bermeo-tik, asita Lourdes-crarte, dana izan zan poza ta kantua gure artean. Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Gernika, Durango, Izar, Donostia..., leku maĩtagarriak! Danak entzun eben gure abesti gozoci soiñua. Donostian alkar ikusi genduan lecene-goz lau autobusekoak, eta kontuan jausi giñean ez gentozala bakarrik: antxe ikusi genduzan Bilbao, Gernika, Durango, Lekeitio, Zarautz, Tolosa ta beste leku batzuetako pelegriñoak, eta poztu egin gintzazan.

Parentesi penagarria

Errenteria-tik urtekeran, motozikleta bat etorren gure atzetik abiada aundiagaz, eta pasatu egin gura euskun eskerretik, legea dan lez, geure aurretik joateko. Orduan baiña, alan bearrez, mutil gazte bat etorren oiñez gure eskumaldetik, pintura zurizko bidoi bat eskuan croiala, kamiñoaren beste aldera pasetako asmoz. Jo egin eban motozikleteak mutilla; eta momentu aretan, motoa ta motoduna, pintura ontzia ta mutilla aidean ikusi zirean, begien itxi-idigi batean. Gero, motoa bide egalean, pintura kankarroa ausita kamiñoaren erdian, mutil biak zirkin barik kamiñoko asphaltuaren gainean. Motodunak, aurpegia pintura zuriz zikinduta.

Jatsi nintzan autobusetik, esan neutsezan jakulatoria batzuk belarrira, eta emon neutsen ausolvaziñoa *in articulo mortis*. Biak zirean mutil gazteak; gaverdikoak, bata zein bestea. Oiñezkoa konorjeratuten asi zan. Bestea arnasa artzen. Baiña arrezkerokorik ez dogu jakin. Bizi ete dira? Il ete zirean? Il edo bizi, egon beitez Jaungoikoaren bakan. Kamioeta baten zuzendu genduzan Errenteria-ko hospitalera.

Frantzia

Fronterako eginbearrak arin amaitu dira, bai Irun-en eta bai Hendaia-n. Orain Frantzia aldeko kamiñoetan —kamiño launak, garbiak, zabalak curak— lantzean bein, alako autobusezko errosario bat ikusten genduan, bideak gurbaren bat eukiten ebanean. Esker-eskumatara landa ederrak, bedartza garbiak, baserri zuriak, hotel eta txalet atsegingarriak. Bide kurtzioetan burdiñazko kurutzeak, metro ta erdi, metro bi altu, Kristo uitzez josiaren irudi santuagaz. Guztiak bardiñak.

Baiona-ra elgu giñeanean, leenengo bariakua zan ezkerro, komuniño santua artzeko guraria agertu eusten batzubatzuk. Orretarako katedralera joan gintzazan. An abade bat aurkitu neban, eta euskeraz berba egin neutsan. Eta berak arin erantzun nire Bizkaiko euskereari bere Lapurdiko euskera gozoan.

Baionan eta Frantzia aldeko beste errietan ikusten zan-notarik agiriena, nire ustez, garbitasuna zan, bai kaleetan, bai plazetan. Gu, geure jatekoa artzeko, egon giñean-parkean, or emen or emen ikusten zirean alako letreru batzuk: «*Jetex ici vos papiers*», au

da, bota emen zeuen paperak. Eta genteak zeatz obedezieta eban letreruaren agindua.

Niri orduan etorri jatazan akordura, beñola baten, Bermeo-ko lameran ikusten zirean-letreru batzuk: «*Umeak, begiratu loratzuak, ez ikutu.*» Orain nik ez dakit, oneetan gauzetan aurrera ala atzera egin dogun. Baiña ezin leiteke ukatu, onelako gauzatxuak euren indarra daukela, erriari edukaziñoa ta errespetua irakatsi ta ondo biziten laguntzeko.

Ordu bi terdiak inguruan urten genduan Baionatik. Emendik Pau-era, laster iruntsi zituan gure autobusak kilometroak. Urrengo geldiumea, Lourdes.

Lourdes

Lourdes-en gengoan arratsaldeko seiretan. Ia bertara eldu arte, ez da ikusten erria. Antxe dago, beeko trokan, bere torre zuri ta txairoakaz, bere parke ta arboladiakaz, bere kapilla ta Kalvarioakaz. Lourdes-ko uria, or kalea gora, or kalea beera; or denda dirdiratsua, emen hotel elegantea, beste humillago baten ondoan, Lourdes guztiena dala adierazoteko urrean.

Baiña, Massabielle-ko grutea nun dago? Preguntaka dabil gentea. «Ez da agiri —diño—, arbolak, udabarriko orriz jantziak estaltzen dabelako. Baiña, etxaramon, laster ikusiko dogu bertan, urre urretik, ez urru-netik.»

Geure hoteletan atondu gara, apari arin bat jan dogu, eta gentea arin abiatu da. Nora? Burdiñea nora? Imanera. Arria lurrera, suaren garra zerura. Euskaldunen biotza Andra Mariagana. Egia esan, ez euskaldunak bakarrik. Espainiako provintzia guztiak euren semerik onenak onaxe ekarri ditue gaur: Aita San Frantziskoren umeak, gure anaiak, iru milla gitxi gorabeera.

Eguraldia ederra egin deusku, ta gaua ederra dator. Aidea ez otza, ez beroa. Zortzirak dira. Zeruan leenengo izarrak agertu dira.

Antortza Prozesiñoa

Baiña au ez da berbaz edo lumaz adierazoteko gauzea. Iñoiz Lourdesko cleizearen erretratu bat ikusi badozue, an agertuko jatzuez alako, arku batzuen gainean, alde bietarik, esker-eskumatara, gorantza doan bide bat eta eskillara bat. Eta Basilikearen aurrean, parke zabal eta laun bat. Parkearen

egal bietan, kale bat, ogei metro zabal, olakoren bat, nik orain gogoratuten dodan lez. Guztira, arantza-onantza, kilometro bat eulki leike parkearen alboetako kale orrek.

Kontu egin ba orain, leku ori personaz beterik dagoala. Gizon, andra, gazte ta ume, abade, fraille, monja, amar amabi obispo euren txano moradu ta guzti. Euretari bat edo bat bizarduna, gaztaiña kolorezko sotanea soñean, Frantziskanoen edo Karmeliten misioetakoren bat aurki.

Unadarik unadara pankarta batzuk ikusten dira naziñoen izenakaz, eta pankarta bakotsaren atzetik datoz naziño aretako pelegriñoak. Nire adiskide bat eta biok, gure lagunakandik apurtxu bat urrundu gara; eta prozesiñoan ainbat ariñen parte artzearren, Suizoakaz batera sartu gara.

Euskaldunen artean ez gitxitan entzuten da, geu gareala mundu guztian erririk katolikoena. Nik ez dot esango, au zenbateraiñoakoan dan egia. Baiña bai esango dot, Euskalerritik kanpora be ba-dagoala fedeia, gure aurre, atze ta alboetako zuizoak erakusten eben lez. Zelan ikusten jaken begietan, barruan eroien-devoziñoa. Zelan euren kantuetan, euren biotzeko adorea. Eta bardin naziño guztietakoak.

Prozesiñoa ez dago geldi. Ibilli dabil parkearen inguruan, persona bakotzak bere eskuan kandelatxu hanã iziotuta daroala. Onek, miragarritzko itxura bat emoten deutso prozesiñoari: suzko edo argitasunezko ibai baten antza.

Gaiñera, au bakarrik ez da Antortxa Prozesiñoa. Ez da bakarrik ikustekoa. Baita entzutekoa-bere. Areek gizonak eta andrak —berrogetamar milla edo batek-badaki zenbat milla— ez joiazan ixilik. Geienak geienak euren papertxuak eroiezan eskuetan, eta Basilikako organoagaz batera kantetan eben:

Zerutik emen jatsi da

Jainkoaren Ama.

Bere sortze garbiari

Ave, ave kanta.

Eta gero guztiak, ago bat eta samia bat baillitazan:

Ave, ave, ave Maria,

Ave, ave, ave Maria.

Onetan gengozala, Bermeotar batzuri entzun neutsen esaten: «Txo, guk geuric.» Eta kantetan asi zirean:

Agur, agur, agur Maria,
Agur, agur, guztiz garbia.

Nik orduan, neure artean: Emen alemanak, zuizoak, frantsesak eta beste guztiak, *Ave, ave* diñoa, eta besterik ez. Gu, zegaitik apaitatuko gara eurakandik? Orrexek, besteen ona geuretzat ez artzeak, orrexek ez ete gaitu galduko, bai erlegiñozko gauzetan bai cuskerazkoetan? Ez daigun pentsa, geu bakarrik naikoa gareala geuretzako. Ez. Besteen laguntzea bear dogu biziten irauteko. Osterantzean, alde guztietarik jatorkun olatuak, zapaldu egingo gaitu bere azpian. Eta orduan gure erlegiñoa, gure izakerea, gure euskerea, dana ondatuko da olatu orren azpian.

Gaiñoen Bedeinkaziñoa

Lourdes-en au zer dan adierazoteko, Alexis Carrel edo Franz Werfel edo onetariko baten lumea bear litzake. Nik, emen, illebete garrenean, gogora jatorazan impresiõntxuak ipiñiko ditut. Ez dot esango, aretan egunetan Ama Virgineak gaiñoakaz milagruren bat egin baeban ala ez. Zabaldu zan, Mondragoiko andra bat, urte bete ta geigoan bizkar azurreko gatxagaz egon dana, zearo osatuta etorri dala etxera.

Baiña beste milagru batzuk egiten ditu Andra Mariak Lourdes-en. An ikusten da, zelako virtutea daukon gure erlegiño santuak, mundu onetako gatxak, ezbearrak eta samintasanak arinduteko.

Goizean, baiñu tokitik etozala ikusi nitan lecnengoz. Zenbat zirean? Asko, asko. Bakotzak bere laguntzaillea ekarren, kotxetxuari tira edo saka egiteko. Esku baten errosarioa, beste eskua kotxeari oratuta. Otoitzaren murmurioa ezpanetan. Alantxe etozan guztiak: eleizgizonak, monjak, aboratsak, beargiñak, klase guztietakoak. Lan ori, borondatez, pagu barik egiten ei dabe danak. Euretariok askok, antxe, leku santu aretan lortu izan dabe euren osasuna, Andra Mariari eskerrak.

Arratsaldeko lau terdiak izango zirean, gaiñoen bedeinkaziñoarako prozesiñoa atondu zanean. Agertu zan gure Jauna bere Sakramentu adoragarrian, obispo baten eskuetan, seda zurizko zeru baten azpian. Beste obispo batzuk alboetan. Aurretik, erreskada luze bitan, abadeak eta fraileak, habitu guztietakoak. Aurrerago monjak, era berean. Gentea, monjen aurretik asko, beste asko

kalearen ertzean kantetan edo errezuerei erantzuten. Gaixoak aurrerengo, Basilika santuaren gerizpean, eguzkia bero egoan-da.

Eleizgizon eta erri, guztiok asmo bategaz, organoaren laguntzeagaz, estropha liturgikoak kantetan genduzan —Pange, lingua; Lauda, Jerusalem—, errozarjoaren amarrekoak saindaka. Dana ondo, dana biotzik gogorrenari astifaldi bat emon eta samurtu eragiteko moduan. Kustodia santua gaixoakana eldu zanean, banan banan bedeinkatuten zituan obispoak gure Jaunagaz. Birtartean, kantuak ixilduta, mikrofonoetatik asi zait nór bait jakulatoria batzuk esaten, momentu aretako ezin egokiagoak: «Jauna, zuk maite dozuna gaixorik dago. Jauna, gura badozu, osatu naikezu. Sancta Maria, salus infirmorum, gaixoen osasuna, erregutu gure alde.»

Azkenean, geu guztiok bedeinkatu giindu-

GOAZEN LOURDES'A

Gipuzkeraz egiñiko liburu txiki polita. Lourdes'era doazan pelegrinoentzako guztiz egokia.

Eskatu: PP. Benedictinos - Lazcano (Guipúzcoa).

zan gure Jaunak bere kustoñatik, eta joan giñean gure hotelera, aparri kopau bat artuta, arin, illunabarrean, atzoko lez, Antortxa Prozesiñorako prest egoteko.

Etxera

Lourdes itxi, eta etxera joan bear. Kanpoan egun batzuk igarota, etxera biurtzeko ordna datorrenean, pozarren egoten gara, geure familian maite doguzanak barriro lantanduteko. Niri beintzat beste sentimentu batzuk jabetu jatazan biotzean. Lourdes itxi bearra! Ain izan dira atsegingarriak emen igaro doguzan orduak.

Oraindiño goiz onetan emen gagoz. Eta orduak eta minutuak ondo aprobetxatu gura doguz. Goiz onetan, Irugarrendar pelegriñoak geure komuniño meza eder bat euki dogu. Goiz erdian, Via-Crucis bat, devoziño andikoa, mendira. Andik grutara jatsi giñean barriro, Ama Virgiñeari azkenengo gauzatxuak esateko.


Onetan gengozala, esan euskuen euskalduneri, San Pio X-ren lurpeko Basilikara joateko. Joan gintzazan guztiok batera, San Iñazioren martxea kantetan. An oraziñotxu bat egin, eta gero emon euskuezan azkenengo ordenak.

Arratsaldeko ordu bietan puntuan asi zirean autobusen motorrak gurgur zarataka. Pelegriño guztiak Ama Virgiñeari agur egin geuntsan kantetan:

*Agur, Jesusen Ama,
Virgiña maitea,
Agur, itsasoko izar
Diztiratzailla.*

Urrengo geldiuñeak izango dira: Biarritz-en ordu erdi, Donibane Lohitzune-n beste ordu erdi, Hendaia-n eta Irun-en frontierako gorabeerak, Donostia-n ordu bete afaldu-teko. Goizeko ordu batetan Bermeen gengozan danok.

Aingeru



7'garren orritik dator

asko Ekintza Katolikoan sartuta dagozala eta erlegiñoaren alde gogoz bear egiten dabela. Esan eustan, urtean sarritan komulgetan direala eta garizima demporako ejerzizioetan eleizea gizonetoperarte beterik egoten dala. Arraintzale arek arrituta itxi ninduan, eta fletxa bate lez sartu jatan biotzean Bermeoko arraintzaleen pentsamentua.

Zapatua eldu zan, eta Bermeora biurtu bear. Agur, Lekeitiarrak. Agur urrengoarte. Millesker biotz biotzetik. Eta orain mesede bat eskatuko deusuet: Irakurri «ANAITASUNA». Ikasi euskeraz leiduten. Guztiz erreza da. Guk, geure aldetik, alegin guztia egingo dogu, gure orritxu an zuen gustukoa izan daiteñ. Agur.

Berrialua



SEI EGUN LEKEITION

Sei egun luze. Lekeitioko kaleak, luzeagoak baiña. Arranegi, Ezpeleta, Tenderia! Kale luzeak benetan. Eta zenbat portal, zenbat ate! Aintxiñako etxeak. Gitxi azi da Lekeitio.

Etixerik etxe, aterik ate ibilli naiz sei egunean. Eta eguneko, sei-zazpi orduan. Zetan baiña? Emoten. Bai, emoten. Niretzako ez neban ezer gura. Genteak baiña, ez eban beti olan pentsetan.

Batzuetan, ate aurrean ikusten nindueneko, limosnatxu bat emon gura izaten eusten, fraile eskekoa nintzalakoan. Ez, ez nintzan joan Lekeitiora limosna eske. Niri neuri, egia esango deusuet, gauza atsegingarria izango litzakit limosnea eskatutea. Jaungoikoaren amorearren aterik ate ibiltea. Aita San Franziskoaren antzera, eskeko izatea. Gauza pozgarria izango litzakit, komentuan zer jan euki ezean, jateko billa joatea. Benetako pobrea izanik, daukonari eskatutea. Orainarte baiña, ez dot zorion ori euki.

Beste batzuetan, gentearen murmuriak, eurak ez ekiela, entzuten nebazan, eta

min apurtxu bat artzen neban biotzean. «Atrapau gaitu, atrapau gaitu», esaten eutsen andrak alkarrereri, ni urrengo portalean sartzen nintzanean. Ez, ez nenbillen ni iñor atrapatetan, askatasuna emoten baiño. Espirituaren askatasuna, arimearen libertadea, jakituriaren alaitasuna, egiaren argia.

Eurak, orren orde, zerbait emoten eusten. Gauza gitxi. Pesetatxu batzuk. Nok asmauko ete eban dirua! Zoritxarreko gizona! Ze gauza ederra izango litzaken, batak besteari beti doan lagundutea, beti gratis mesede egitea!

Eguneko bearra amaituta gero, Aita Merzedarioen Kolegiora joaten nintzan. Antxe bizi dira Aita Pedro Errigoitikoa eta Aita David Mondragoitarra. Eskerrak eureri eta komunidadeguztiari, ain ondo artu ninduelako. Orixe daukogu erreligiosoak: gurasoak ixten doguz etxean, eta euren orde anai-arrebak topetan ditugu mundu guztiko komentuetan. Auxe berau esaten neutsen Dakarren Bermeoko arraintzaleeri, eta eraso egiten eutsen nire berbak, pozez

beterik Monja Zurien etxetik embarka-
ziñora etorten nintzanean.

* * *

Urrengo egunean, barrero etxetik etxe,
oles egiten ate guztietan. Oraindiño ez
deutsuet esan zetan joaten nintzan. Ale-
gin guztia egiten neban, eurak lez berba
egiteko. Euskera polita Lekeitiokoa. Ber-
ba batzuk be ba-daukez beste errietan
entzuten ez direanak. «Ez jo ate orretan
—esaten eusten sarritan—, orko andria
kabanen dago-ta.» *Kabana* deituten deu-
tse Lekeition arrain fabrikeari. Baiña
nire alegin guztia gorabehera, laster igar-
ten eusten Bermeokoa nintzala.

Asko egiten da euskeraz Lekeition.
Arraintzaleak ez direan neskatillak be,
euskeraz egiten dabe. Neska bardingoen
artean, aspaldion naikoa sartu da erde-
rea. Euskalerriko beste erri askotan lez.
Andra batek esan eustan, erdera kontu
ori monjakaitik zala.

Etxe baten euskalzale sutsu bat aur-
kitu neban. Lekeitiarra bera. Berrogetaz
urte igaro izan zituan Australian. Bertan
itxi ditu semeak. Eta Euskalerrira etorri
barik, danak dakie euskeraz. Dardar
egiten eutson eskuak eta ausi egiten
jakon voza agoan emozioaren pasiñoa-
gaz, semearen euskerazko karteak irakur-
ten asi jatanean.

Beste etxe baten esan eusten, an
Boise-n, Norteamerikako Idaho esta-
duan, euren familiako batek astean as-
tean euskeraz radiotik egiten ebala.

Eta Lekeitioko neska gazteak zer?
Etxe baten euskalzale zintzo batek urten
eustan. Pozarren eroan ninduan barrü-
ra, eta beste gauza askoren artean esan
eustan, Bilbaoko gazte batzukaz erririk
erri euskerazko teatro egiten ibiltzen zala.
Beste batek, «Egan» errebista eskatu
eustan. Areri ez eutson bildurrik emoten
Donostiko errebista orren euskera ele-
gantek.

Beste neska interesante bigaz be berba
egin neban. Biak bear egiten eben Ekin-
tza Katolikoan. Biak irakasten eutsen

neska-mutikoeri kristiñau ikasbidea. Biak
esan eusten, katezismoko euskerea gatxa
zala. Eta nik eureri errazoiak emon bear,
zoritxarrez oraingo dotriña barria be ga-
txa da-ta. Gero esan eusten, Ekintza
Katolikoko estudio batzarrak erderaz
egiten zituela. Orretan ez neutsen erra-
zoiarik emon. Gauza sakonen gainean
berba egiteko ez dau balio euskerak
ala? Umeakaz ibilteko eta poesia po-
litak egiteko bakarrik serbiduko dau
euskerak ala? Ekintza Katolikoa, zo-
ritxarrez, erderarantz joaku leku guz-
tietan.

Arratsaldeko zortzirak inguruan joa-
ten nintzan Merzedarioen Kolegiora.
Geienetan, parrokiarako bidea artzen ne-
ban. Eleiza ondoko plazan ainbeste ume
topetan nebazan beti olgetan. Ariñak
arin etorten jatazan, eta kordioari kasu
egin barik, errosarioko kurutzeari mun
egiten eutsen. Frantziskano gitxi ikus-
ten dabe Lekeitiarrak. Orrexegaitik-edo,
eirdi ilda dago bertako Irugarren Orde-
nea. Il zirean Aita Pedro Erkiaga, Aita
Maximo Akarregi, Aita Juan Koskorro-
tza, Aita Arrinda eta Aita Luis Sara-
sola. Orain iru frantziskano bakarrik
bizi dira. Irurak edadekoak. Bi Amē-
riketan, eta Valladolid-en irugarrena.
Noiz ikusiko ete dogu Lekeitioko beste
frantziskanoren bat?

* * *

Urrengo egunean bardin. Eskillarak
gora, eskillarak beera. Jo an, jo emen.
Arraintzale batek atera urtetan eusta-
nean, poztu egiten nintzan. Gizonak,
geienetan, obeto ulertzen zituen nire
errazoiak. Dakar-ren neugaz egon zire-
nak be topau nebazan. Itxasoak alkartu
egiten ditu gizonak. Zelako poza artu
eban «Villa de Lequeitio»-ko patrioiak,
bere errian ikusi nindueanean! Arrapa-
ladan etorri jatan saludetan Atxabal ka-
lean gora.

Lekeitioko arraintzalea, eleizbidekoa
da. Batek esan eustan, euren arteko



VALENTIN BERRIO-OTXOA DOATSUAREN KARTAK

IX

Nere amatxo maitia:

Con que larri ikusi al dira koleriakín? Gure pekatuak asarreturik dauke Jaungoikua; baiña bere asarrean-bere, beti misericordiyagaz begiratzén deusku.

Zenbat pekatari tristek, eriotzia begiyen, aurrian ikusita, bere pekatuko bidia iritxiko entsan kolerako demporan! Igaz eta aurten Jaungoikuak bankatu deust niri eta berorri-bere bai.

Zer eskatzen deusku bada Jaunak mesede andi onegaitik? Geure bizitzako egun laburrak empleatu deiguzela bere serviziyuan.

Bai, amatxo. Jauna servitzia, o zer gauza gozua dan! Gozua bizitzan, eta gozuagua eriotzako orduan. Jesus maitiaren ezitiko agotik, «atoz nere servitzari maitia» ordu larri ortan entzutiagaitik, Mariya Virginiaren arpegi ederra zeruan ikustiagaitik, zer pena eta zer trabaju pozik eramango ezitugu?

Meza santuan presente eukiko ditut, Jaungoikuak pazientzia emon deiyon, bialdutzen deutsazen trabajuetan.

Agur, amatxo, Gabon jaiak artian.

Valentiñek

X

Neure amatxo guztiz maitia:

Urte askotako pazkuak desiatzen deutsadaz arima eta gorputzeko osasun bakiagaz,

bada semetxua guztiz ondo dago, Jaungoikuari graziyak.

Jesus maitiarekin guk-ere errezuzitatu biar degu, geure trabajutuak konformidade andi batekin eramagaz; bada Jesusen lagunak bagera trabajuetan, konsueluetan-bere izango gera.

Agur. Gorantziyak Angelari; eta esan beio, Ama Virginiaren adiskidea izan deilla biotz garbi baten bitartez.

Eskumunak osaba Frailiari, eta Urruti gentiari, Susana Gaztaiñagakoari eta beste aidiari.

Valentiñek

«ANAITASUNA» DE VIZCAYA

DIRECTOR:

P. Manuel Berriatua

PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya

ADMINISTRADOR:

P. Teófilo Arzállus

PP. Franciscanos, Zarauz, Guipúzcoa

Irakurri Bizkaiko ANAITASUNA

Éskatu Zarautzera

Urte beteko suskriizioa: 12 peseta